

Kanalak

H-ME proiektuan gure balorezko proposamena erabiltzaileei helarazteko, interneteko web orri bat sortuko dugu. Baita android eta ios en aplikazioa sortuko dugu eta honen bidez erabiltzaileak janaria eskatu egingo dute, baita eskaini ere.

Web orriak diseinu praktikoa eta oso eraginkorra izango du. Hau da, klik batekin “Help Me” edo “Help someone” sakatuz janaria eskuratu edo eskainiko dute. Aplikazioa mugikor, ordenagailu edo tabletaren kokapen geografikoa hartuko du eta gure langileak motorrez emailearen kokapenera abiatuko dira. Janari horri kalitatezko froga bat egingo diogu eta kalitate froga gainditzen badu, janaria eskatu duen erabiltzailearen kokapenera abiatuko da. Berriz, ikastetxe batetik deitzen badute kamioi bat erabiliko dugu. Kalitate froga eta gero, janari hori kargatu eta gure biltegian gordeko dugu eta iraungipen dataren arabera sailkatuko ditugu hozkailu handietan. Geroago, janari hau iraungipen data txikiagotik handienaren arabera banatuko dugu zebitzuaren erabiltzaileen artean eta iraungitzeko epea amaitzeko larrialdia badago, pobreen jantoki sozialen artean banatuko dugu.

- **Komunikazio kanala:**

Gure komunikazio-kanala beraz, zuzena izango da, hau da aplikazioa eta web orrialdea erabiliz eta baita gobernuaren bidezko publizitatearen bidez, erabiltzaileek eskaintza ezagutuko dute eta pertzepzio harreman-gunea beteko dugu. Horretarako, proiektu hau gobernuaren auzitegi batean aurkeztu beharko dugu epaileei proiektu hau aurkeztuz. Gobernuarekin akordio bat egingo dugu gure proiektua finantzia dezaten. Aplikazioa guk geuk diseinatuko dugu eta informatikari bat kontratatuko dugu garatu dezan. Gure erabiltzaileek gobernuak finantzatzeko publizitatearen bidez, proiektuaren ebaluazioa egingo dute eta erosketa-saila beteko dugu ere bai.

- **Banaketa kanala:**

Banaketa-saila H-ME proiektuaren atalik garrantzitsuenetarikoa da. Izan ere, janariaren garraioa arina izan behar da erabiltzaileek janaria arin jaso dezaten. Horretarako, bi azpisail egingo ditugu: garraioa eta entrega.

1. **Garraioa:** Garraioa motorrek eta kamioiek osatuko dute. Gehiengoak motorrak izango dira arinagoak direlako hiritik mugitzeko eta hauen kostua txikiagoa delako. Gure enpresa Bizkaitik mugituko da eta, Bilbon egongo da instalazio nagusia. Beste postu batzuk edukiko ditugu Bizkaitik zehar. Postu bakoitzeko 5 motor edukiko ditugu. Postu bakoitzeko kamioi bat. Motorrak aplikazioen eskaeretatik arduratuko dira. Kamioiek berriz, eskola publikoetatik edo beste lekuetako janaria hartu eta postuetara eramango dute hozkailuetan sartzeko.
2. **Entrega:** Bi motatako entrega izango dugu: motorrenak eta postuenak. Motorrak janaria jaso eta erabiltzaileei entregatuko diete dohainik. Janaria jasotzen duenean janaria jangarria den baloratuko du. Kamioiak janaria jasotzerakoan balorazio arin bat egingo du eta postura eramaterakoan nutrizionista batek aztertuko du. Geroago bertara jendea joango da janaria hartzera dohainik.

- Salmenta kanala: Janaria dohainik izango da eta hori da H-ME proiektuaren berezitasuna.